

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Alkateak ebatzitako eskumenen eskuordetzeak

2024ko abenduaren 18ko 24/452 Dekretuaren bidez, alkateak berariaz eskuordetu ditu gai jakin batzuetako prozeduren ebazpenak, aipatutako dekretuaren xedapen zatiaren lehen eta bigarren apartatuetan adierazten den bezala:

«LEHENENGOA. Zerbitzu Orokorretako eta Hirigintzako buruari eskuordetzea ondoren zerrendatuko diren gaietarako buruzko prozedurak ebatzteko eskumena. Zerbitziburua ez badago, prozeduraren instrukzioan esku hartu ez duten arloko teknikarien esku utziko da horiei buruz ebatzteko eskumena.

LURRALDEA

- Baso bide publikoak erabiltzeko baimenak.
- Salmenta ibiltaria berritzea udal merkatuan.
- Fidantza itzultzea (kontratazioarena, baso bideak, azoketako salerosleak, txurro dendak eta abar behar bezala erabiltzen direla ziurtatzeko).
- Egur hilak erabiltzeko baimenak.
- Zehapen espedientea hastea animaliak edukitzeko ordenantza ez betetzeagatik.
- Hilerria.
- Obra txikietarako lizentziak.
- Azokako atrakzioak, txurro dendak eta postu ibiltariak instalatzea.
- EITarekin hautemandako okerrak zuzentzeko errekerimendua.
- Merkatu, azoka eta jaietako saltokiak baimentzea.
- Polizia zenbakia esleitzea.

ANTOLAKETA

- Enpresa hornitzaileen okupazio tasa likidatzea.
- Ordaintzen sistema berezian sartzeta.
- Hirurtekoak aitortzea.
- EPEetan edo lan poltsetan onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onestea.
- Trafikoaren arloko zehapen prozedurak hastea.
- Biztanleen errolda.
- Hauteskunde kanpainako ekitaldietarako bide publikoa okupatzeko baimenak.
- Arriskutsuak izan daitezkeen txakurren lizentziak.

BIGARRENA. Gizarte Zerbitzuen koordinatzaileari eskuordetzea ondoren zerrendatuko diren gaiei buruzko prozedurak ebazteko eskumena. Koordinatzaileak ez badago, prozeduraren instrukzioan esku hartu ez duten arloko teknikarien esku utziko da horiei buruz ebazteko eskumena.

- Garabiak, ohe artikulatuak eta gurpil-aulkiak ematea».

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditza jakinarazten da.

Amurrio, 2024ko abenduaren 20a

Alkatea

TXERRA MOLINUEVO LAÑA